



AUZO-EZTABAIDAGUNEAREN LABURPENA

2. TXANDA (2018)

MILAGROSA-ARROSADIA-AZPILAGAÑA

Data: 18/10/02

Ordua: 18:30

Lekua: Milagrosako Civivoxa

Auzoko zinegotzia: Javier Leoz

Parte-hartzaileak: Emakumeak: 9 Gizonak: 5

Alorreko erreferentziatzeko teknikaria: Elian Peña

Moderatzailea: Elena Esparza, Herritarren Parte-hartzea
dinamizatzeko Zerbitzua

Kontalariak: Ane Zabaleta eta Sergio Espinosa

Gai-zerrenda:

1. **Hasiera**
2. **Udala berriemaile**
3. **Auzoa berriemaile Diagnostiko komunitarioa eta ADACEN**
4. **Talde-dinamika: Dinamika, Javier Espinosaren eskutik –Hiri Jarduketarako Plan Berezian (PEAU) Parte hartzeko Planaren arduraduna–**
5. **Udala adi**
6. **Amaiera**

Auzo-eztabaidagunea hasi da Iruñeko Udaleko parte-hartzea dinamizatzeko lantaldeko teknikari Elena Esparzaren eskutik. Aipatu aurkezpenean, bertaratuei zein publikoan dauden auzoko zinegotziari eta gainontzeko zinegotziei eskerrak emateaz gain, hainbat kontzeptu garrantzitsu aipatu ditu eztabaidagunea garatzean kontuan izateko, esaterako:

- Herritar aktibo gisa izena emateko aukera, horretarako bertaratuentzat eskuragai jarritako fitxetan.
- Haurrentzako ludoteka-zerbitzua erabiltzeko aukera, 4 eta 12 urte bitarteko publikoarentzat prest eztabaidagunea gauzatu bitartean. Hori erabiltzeko, aurreko asteleheneko 20:00ak baino lehen jakinarazi behar da.
- Bertaratuei jakinaraztea saioa Herritarren Partaidetzako eta Gizartea Ahalduntzeko Alorraren Youtube kanalaren bidez streaming-en ematen dela. Azkenik, berritasun gisa, jakitera eman da badela aukera Erabaki plataformaren bidez (erabaki.pamplona.es) proposamenak eta galderak egiteko, eta online parte hartzeko 19:30era arte, hori bateratze lana egin ahal izateko muga-ordua baita.



Ohar horiek partekatuta, eztabaidagunearen egitura azaltzen hasi da.

- **Hasiera:** Herritarren Partaidetzako eta Gizartea Ahalduntzeko Alorreko zuzendari Antso Fernándezen eskutik.
- **Udala berriemaile:** Auzoko zinegotzi Javier Leozen eskutik.
- **Auzoa berriemaile:** Auzoak proposatutako bi parte-hartze egon dira. Lehenik, Teresa, komunitate-diagnostikoaren talde eragilearen izenean; eta, ondoren, Antonia Morena, ADACEN elkarteko gizarte-langilea.
- **Talde-dinamika.** Javier Espinosaren eta Begoña Laquidainen eskutik –Hiri Jarduketarako Plan Berezian (PEAU) Parte hartzeko Planeko kideak–.
- **Udala adi.** Mikro irekiko txanda hasi da, non bertaratu guztiek zinegotziari egokitzat jo duten oro proposatu, galdetu, kontatu... ahal izan baitiote.

Irekiera

Herritarren Partaidetzako eta Gizartea Ahalduntzeko Alorreko zuzendari Antso Fernándezen parte-hartzea.

Fernándezek hartu du hitza, eta hasteko teknikari guztien lana eskertu du, auzo-eztabaidaguneak –jada 5. txandan– ahalbidetzen baitituzte. Eztabaidaguneak egonkortu dira, hartu-eman eraginkor eta eragingarrirako gune gisa; hortaz, pixkanaka ekarpen gehiago txertatu dira, eta horiek herritarrentzako itzulketan izango dute ardatz. Era berean, eztabaidaguneko gai-zerrendaren barruan, zuzendariak auzoak berriemaile izateko aukera duen tarteaz azpimarratu du, orduan entitate ezberdinek garrantzitsutzat jo dutena kontatu, jakinarazi eta / edo helarazi ahal izan baitute.

Azkenik, berriro aipatu du Erabaki plataforman auzo-eztabaidaguneak garatzeko egindako tarteaz, herritarren partaidetza finkatze aldera. Ekarpenean edo iradokizunak egiteaz gain, eztabaidaguneetan adierazitako gaien laburpenak ikusgai jarriko dira.

Udala berriemaile

Auzoko zinegotzia Javier Leozen parte-hartzea.

Javier Leozek bere izendapena, auzo-zinegotzi gisara, azalduz eman dio hasiera atalari. Baikor agertu da, hainbat partaidetza-prozesutan, hala nola EDUSIn edo elkarbizitza-arazoei buruzko bileretan parte hartu duenez, badu auzoko errealitatearen berri. Ohar honen ondoren, hainbat galderei erantzuteari ekin dio, Milagrosa, Arrosadia eta Azpilagaña auzoetarako Udalak hartutako proiektu eta konpromisoei buruz.



-Felisa Munarriz Plazatik abiatuta, Manuel de Falla eta Irati Errekaren kaleetan barna, doan tarte oinezkoendako atsegino egiteko proiektua: lizitazioa ahalik eta lasterren ateratzeko zain.

-Sadar erreka Zaragozako etorbideetik Saihesbideraino hobetzeko proiektua: jada lizitatuta eta ematear.

-Guelbenzu kalea, 8: bizikleta-aparkalekurako egokitutako lokala. Aste honetan zehar lanak amaitzea eta laster erabiltzen hasi ahal izatea espero da.

-Milagrosa-Arrosadiko Gizarte Ekimenetarako Zentro Komunitarioa (GEZK) egokitzea: 120.000 €-ko aurrekontua. Aurrekontu-partida indarrean egon bezain laster aterako da lizitazioa.

-Milagrosa-Arrosadiko auzo-unitatea eraberritzea, 250.000 €-ko partida duela. Saiatuko da urte bukaeran lizitatzen, baina zaila izango da.

-Estalkia paratzea Alfredo Floristán plazan. Aurrekontua: 250.000 €. Une honetan egin litezkeen diseinuak aztertzen ari dira.

-Espaloi-topeak, eta Guelbenzu, Santa Marta zein beste kale batzuetan aparkalekuak birkokatzea: 50.000 €. Zinegotziak auzoko espaloi batzuen berrantolaketa azaldu du, orain arte autoak zeuden tokian oinezkoentzako pasagunea egongo litzateke.

-Hiriaren Garapenerako Estrategia Integratu eta Jasangarrion (EDUSI): Azpilagaña auzorako auzo-lokalaren alokairua (Buenaventura Iñiguez k., 18-20, behea) zuzenean esleitzea. Egindako eskaintza 1.930 €/hilabete da BEZ barne.

-Bukatu egin da Diagnostiko komunitarioa, Carlos Vílchesek eginda. Eztabaidagunearen Udala berriemaile atalean Teresak proiektuaren aurkezpena egingo du.

-Yoar elkarteari esleitu zaio ijituekiko elkarbizitza-proiektua. Aurrekontua: 100.000 eta 121.000 € bitarte

-Hitzarmena honako lau erakunde hauen artean: Telefónica fundazioa, Munduko Sendagileak, Caja Navarra fundazioa eta Iruñeko Udala (elkarlanean ANIMSArekin). Hitzarmenaren xedea: Mikroinformatikan eta Komunikazio-sareetan Teknikari Laguntzailea izeneko prestakuntza ikastaroa egitea. Ikastaroan izena ematean Milagrosa, Arrosadia, Azpilagaña eta Santa María la Realeko auzokideek izango dute lehentasuna, betiere Edusiren esparrukoak badira, horri lotuta dagoen proiektua baita; eta bakarrik horiekin osatu ezean beste lagun batzuei irekiko litzaieke.

-Enpleguaren esparruan, Incubadora izeneko autoenplegurako proiektua abian jartzen ari da, ostalaritza-negozioetan zein elikadura-merkatu txikietan lan egin nahi duten emakumeei zuzenduta. Haiek garatzeko, elkarlana dago Acción contra el Hambre eta Gurbindo Etxearekin, zeina Arantzadin kokatuta eta nekazaritza ekologiko zein jasangarriari atxikita baitago.

Behin Udala lantzen ari den proiektuak aurkeztuta, Leozek Auzoa berriemaile atalean beren proiektuen egoeraren berri emango duten entitateei txanda eman die: Teresa, Milagrosa eta Arrosadiko Diagnostiko-komunitarioaren ordezkaria, eta Antonia, ADACENeko gizarte-langilea, Azpilagañan adinekoei eta partaidetzari buruz egindako proiektua partekatzeko.

Auzoa berriemaile

Teresaren parte-hartzea, Diagnostiko-komunitarioaren talde eragilearen izenean.

Hasteko, Teresak zera azaldu du: 2015etik informazioa jasotzen aritu dira auzoan dauden gabezi, behar, ahalmen, eta abarrei buruz, gero erakundeei jakinarazteko.



Informazio hori kontu kontari jaso da, auzokide, teknikari, kolektibo, eta abarrei egindako elkarrizketetan. Adineko, emakume eta nerabeekiko eztabaida-taldeak ere osatu dira, eta 300 bat galde-sorta egin dira telefonoz.

Informazio hori guztia teknikariei eman zitzaizen, hori sistematizatu eta txosten bat osa zezaten.

Diagnostiko-komunitarioaren ondoren, Teresak dio hori aurkezteko unea iritsi dela. Hortaz, Udalarekin eta Soziologiako Zerbitzu Teknikoarekin elkarlanean, talde eragileak urriaren 25erako deialdia egin du, 18:30ean, Gizarte Ekimenetarako Zentro Komunitarioan, ondorio eta hausnarketa guztiak ahalik eta auzokide gehienei helarazteko. Informazio hori guztia alderatzeko eta auzokideen itzulketak jasotzeko aukera ere eman da, baita etorkizunerako proposamenak egiteko ere.

Azkenik, Teresaren kide batek diagnostikoak auzo-elkarbizitza ardatz izan duela azpimarratu du.

ADACEN elkarteko Antonia Morenaren parte-hartzea

Nafarroako Garuneko Lesioaren elkarteko (ADACEN) gizarte-langile Antonia Morenak hitz egin du, eta zera azaldu: 2016ko apirilean arta-baliabide bat jarri zuten abian, adinekoei edo mendetasun-egoeran gaitz neurologikoren bat dutenei zuzenduta.

Auzoko baliabidea da, egonaldi ertainekoa, eta, hortaz, auzoko osasun-etxearekin harreman handia izan dute. Zerbitzuaren erabiltzaileak auzoko osasun etxera joaten dira lauzpabost egunetan, eta gorputz zein adimenerako estimulazio-jarduerak jasotzen dituzte. Programak zaintzaileak ere barne hartzen ditu.



Proiektua diru-laguntza bati esker hasi zen, baina orain egonkortzea lortu du Eskubide Sozialetako Departamentuan laguntzek gora egin dutelako.

Morenak osasun-artako beste proiektuekiko aldea zehaztu du: proiektua gertukoa eta auzokoa da, bertako bizi-kalitatea hobetzen baitu.

Azkenik, aurten Herritarren Partaidetzako eta Gizartea Ahalduntzeko Alorreko diru-laguntza txiki bat jaso dutela aipatzen du, eta, horri esker, adinekoei eta / edo mendekotasun egoeran daudenei ematen den artari dagokienez, zahartze- eta zerbitzu-diagnostiko bat egin ahal izan dutela. Ekimen horren helburua sareak sortzea da boluntariora eta belaunaldien arteko harremana bultzatzeko, besteak beste.

Lantaldeak

Elena Esparzak Javier Espinosari (Milagrosa, Azpilagaña eta Arrosadiko PEAUen Parte hartzeko Planaren arduraduna) hitza eman dio, bi lantaldeak gidatzeaz bera eta beste kide bat arduratuko baitira, horretarako prestatutako aretoetan.

Dinamiketara igaro aurretik, eta Milagrosa eta Arrosadiko PEAUren testuingurua azaltzeko xedez, proiektuaren koordinatzailea den Sigifredo Martín arkitektuari eman diote hitza.

PEAU proiektuaren koordinatzaile Sigifredo Martín arkitektuaren parte-hartzea

Hasteko, Martínek azaldu du zer den PEAUa (Hiri Jarduketarako Plan Berezia); haren esanetan, oso toki zehatzetarako idatzitako planak dira, jarduketa berezia eta, beste auzoekin alderatuta, lehentasunezko zaharberritzea eskatzen baitituzte, egoera txarrean egoteagatik, zuzkidura ezagatik... horretarako diru-laguntzak eta zaharberritzeko laguntzak ematen dira.

Jarraian, Martínek PEAUa lau fasetan idazten dela aipatu du: horietako lehena -informazio eta diagnostikorakoa- aurkeztu da dagoeneko; orain bigarrena hasi da, zeina funtsezkoa baita dauden aukerak zehazteko, auzoaren antolaketarako eta hobekuntzarako -hala eremu publikoetan nola pribatuetan-. Fase honetarako herritarren partaidetza ezinbestekotzat jo du.

Sigifredok kontatzen jarraitu du plan bereziaren jarduketa bi esparrutan banatuko dela, auzo-afera guztiak horietan sartu nahi izan baitituzte:

- Hiria bera, begien bistan dagoena: kaleak, plazak, zuzkidurak, eraikinak...
- Gizartea: demografiari, biztanleei, gizarte-gaiei dagokiena.

Alderdi sozial eta partizipatibo hori soziologo-talde batek zuzenduko du. Hemen Leozek hitz egin, eta aipatu du auzokideak prozesu partizipatibo horietan engaiatzeak duen garrantzia, proiektu on bat erdiesteko; halaber, bertaratuei horiek hedatu eta parte hartzeko gonbit egin die.

Hori esanda, Martínek jarraitu du, eta proiektu hau ere bi atal handitan banatzen dela esan du: eremu publikoa eta eremu pribatua, horietako bakoitzean jarduketak ezberdinak izango baitira.

Martínek azpimarratu du prozesu honetan Udala zein herritarrak engaiatzea garrantzitsua dela; hortaz, ekarpenak erdizka gauzatzea baztertu egin da. Hori horrela, auzokideen partaidetza funtsezkotzat jo du, izan ere, beraiek ezagutzen dituzte auzoko behar eta gabeziak inork baino hobeki.



Sigifredo Martínen ondoren, PEUn Parte hartzeko Planaren arduraduna Javier Espinosa soziologoak hitz egin du, eta dinamika nola garatuko den azaldu du.

Bi fitxa banatu ditu, eta batzuek 1 zenbakia dutela eta besteek 2 zenbakia dutela azaldu du, bakoitzari zein talde dagokion jakin dezaten.

Alde batetik, eremu publikoari eta, bestetik, eremu pribatuari dagozkien galderak daudela ere azaldu du. Galderetako bateratze lana egiteari ekin dio:

EREMU PUBLIKOA

-Zure ustez, Milagrosan dauden plaza eta parkeak nahikoak dira? Oraintxe dauden horietan zeren falta sumatzen duzue?

-Gizarte-etxe berri baten edo beste zuzkidura batzuen beharra partekatzen duzue? Non kokatuko zenukete?

-Zure ustez, kaleren bat oinezkoendako bilakatzea beharrezkoa da? Zehazki non?

EREMU PRIBATUA

-Zein da zure iritzia beheko solairuak –lokal edo etxabe– erabiltzeari buruz?

-Etxebizitzetako arazo nagusiak zeintzuk dira? (Zerbitzu falta, tamaina, isolamendua, etab.)

-Zure aldetik, etxea eraberrituko zenuke, komunitatean diru-laguntza handi bat jasoko balitz?



Taldekatzearren aurretik banatutako zenbakien arabera, lagunak banatu dira horretarako prestatutako aretoetan:

- 1. lantaldea Civivoxeko 3. aretoan:
Lantaldean, Javier Espinosa soziologoz gain –PEAUko arduraduna– eta Sergio Espinosaz gain –Herritarren parte-hartzea dinamizatzeke zerbitzuko teknikari–, 4 emakume eta 4 gizon daude.

Bertaratuen ekarpenak honako alderdi hauetan banatu dira:

- Eremu publikoa
Eskertzekoa litzateke honako hauetatik gehiago izatea: berdeguneak, eserlekuak (ez-bakarkakoak), plazak, zuhaitzak, iturriak, itzalguneak -jadanik badauden plazetan, adib. Alfredo Floristán eta Felisa Munárriz, eta auzoa dinamizatzeko jarduerak.
Eraikin arteko tarteari buruzko hausnarketa bat egin da, direla publikoak, direla komunitate pribatuenak.
Badauden markesinei beste batzuk gehitzea beharrezkoa dela azpimarratu da, auzoko biztanleen batezbesteko adina kontuan izanda.
Auzoan egoera txarren dauden eremuak suspertzea (Jesús Guridi zeharkalea, San Rafael plaza...).
- Oinezkoen eremua
Hori sustatzea, oinezkoaren alde jokatuta, Isaac Albéniz kalearen eredia zabalduz.
Espaloiak zaharberritzea, eta horien neurriak bateratzea (Zangoza kalea, Guelbenzu kalea).
- Gizarte-etxea eta liburutegia.
Ekimena ontzat jo da, baina kezka agertu dute auzoari zuzendutako diru-ekarpenaren zati nagusia eraman dezakeelakoan, eta horrek beste proiektu batzuk egitea baldintzatuko luke.
Liburutegiaren beharra azpimarratzea.
Zalantzatan jartzen da hautatutako kokapena (egungo Civivox ondoan).
- Guelbenzu zinema
Suspertu beharreko eremu gisa aipatu da, lokalaren bidez

(suspertuz, edukia emanez) eta inguruaren bidez (El Mochuelo plaza).

- 2. lantaldea, Civivoxeko 4. aretoan:

Lantaldea honako hauek osatzen dute: Sigifredo Martín (Arkitektoa eta proiektuaren koordinatzailea), Begoña (Hiri Jarduketarako Plan Berezia erredaktatzeko lehiaketaren profesional esleipendunen taldeko soziologoa) eta Ane Zabaleta (Herritarren parte-hartzea dinamizatzeko zerbitzuko teknikaria), alde teknikoa osaturik, eta 5 emakume zein gizon 1.

Bertaratuen ekarpenak honako alderdi hauetan banatu dira:

- Eremu publikoa
Kale guztietan zaintza homogenea mantendu beharra.
Plaza eta parke gehiagoren beharra, baita haurrendako parke estaliena ere.
Badauden plazetan (adib. Alfredo Floristán, non jada estalki bat eskatu baita), itzalgune gehiago eskertuko lirateke.
Auzokideen iritziak aintzat hartu beharra azpimarratu da.
- Oinezkoen eremua
Proposamena: auzo inguruetako lau kale erabiltzea ibilgailuen zirkulaziorako.
Oinezkoen eremua sustatzea Milagrosaren erdigunean.
Hausnarketa: oinezkoen eremu bihurtzeak auzokideen bizi-kalitatea hobetzen du, bereziki beheko solairuetakoena (zarata ezagatik), baina auzoko biztanle gehienendako eragozpena da, aparkalekua zailtzen baitu.
- Gizarte-etxea eta liburutegia.
Proposamen honen aurka agertzen dira, eta zinema bat, auzo-antzerki bat, eraikitzeke aukeraren alde, gizarte-etxearen orde.



Badagoen eraikin bat gizarte-etxe gisa erabiltzeko aukera aipatu da. Gazteendako zuzkidura eza azpimarratu da, institutu bat, esaterako. Ikastetxeari atxikita dagoen lursailaz galdetu da.

Liburutegiaren kokapena Civivoxari lotzea egokia dela adierazi da.

- Eremu pribatua

Fatxadak irazgaiztu beharra.

Etxeetako teilatuak ikuskatu beharra, izan ere, higaduragatik, horietako asko erortzen ari baitira (Julián Gayarre kalea, Joaquín Larregla kalea, Galizia etorbidea).

Etxebizitza askoren utzikeria azpimarratzea, alokairuan egoteagatik eta jabeen zaintza ezagatik.

- Etxabeak

Suspertu beharra.

Beste erabilera bat ematea proposatzen da, adibidez, aparkaleku edo etxebizitza bezala.

Etxeko urak barneko patioetatik jaisteko zorrotzen ikuskatzea (Santa Marta kaletik Goroabe kalera).

Udala adi

Behin dinamikak burututa, Elena Esparzak auzokideei hitza eman die, eta galdera-errondari hasiera eman:

Santa Marta kaleko auzokideek trafiko gehiegi dagoela uste dute, eta horrek bertan zamalanetarako unetxo batez ere aparkatzea eragozten duela. Zangoza kalea -Julián Gayarretik Goroaberaino, Zaragozako etorbiderantz– norabide bakarrekoa izatea hobe litzatekeela uste dute. Horrela, Santa Marta kalean horrenbeste ibilgailu ez litzateke pilatuko.

Zinegotziak proposamena jaso du; zaila dela adierazi arren, Herritarren Segurtasuneko Alorrera helaraziko duela esan, eta proposamen horiek behin PEAUa idatzita egin beharko liratekeela gehitu du, kontraesankor bilaka bailiteke, zinegotziak adibide gisa aipatzen duen Santa Marta kalea oinezkoen eremu bihurtzearekin.

Une horretan, Sigifredo arkitektuak hitz egin du, eta erabakiak auzoko mugikortasun orokorraren tratamenduaren barruan hartzea zentzuzkoagoa dela azaldu du. Gainera, auzo baten biztanleen beharrak asmaezinak direla gehitu du; horregatik, oinezkoen eremu bihurtzeko politikaren eta aparkalekuz hornitzeko politikaren arteko oreka lortu behar da.

Jarraian, Azpilagañako auzokide batek auzo-eztabaidagune bat Azpilagañan bertan egitea proposatu du, Milagrosa eta Arrosaditik bereizita; izan ere, hizpide izan diren gaietako asko Milagrosa eta Arrosadiko gaiak dira, eta Milagrosako Civivoxa Azpilagañatik gertu ez dagoela gehitu du. Leozek horri erantzun dio, ideia txarra iruditzen ez zaion arren, hau legealdiko azken auzo-eztabaidagune erronda izatea litekeena dela; izan ere, datozen hilabeteetan hauteskunde-garaia hasiko da. Halaber, arazo zehatzen bat izanez gero berarekin harremanetan jarri ahal dela gehitu du.

- Erabaki plataformako galderarik ez dago.

Amaiera

Azkenik, Esparzak Javier Leoz hitza eman dio saioari amaiera emateko.



Amaiera---- Javier Leozen eskutik

Bertaratzea eskertu, eta bukatzeko bertaratutako auzokideak PEAn parte hartzera---- animatu ditu, eta beti berarekin harremanetan jartzera, egoki jotzen duten edozein gaitarako.

Zentroa. Elkarlaneko gunea
Kondestable Civivoxa. Kale Nagusia, 2, 2. solairua) Iruña
948 420266
participacionciudadana@pamplona.es
participa.pamplona.es
erabaki.pamplona.es